

Nafarroak % 5,1 handitu zuen I+Gko inbertsioa 2022an, eta 410 milioi eurora iritsi zen

Foru Komunitatea, 610,1 eurekin, biztanleko barneko I+G gastu handiena duen erkidegoetako bat da, Estatuko batez bestekoaren (402,2 euro) oso gaineratik baitago

Asteartea, 2023ko Azaroaren 28a



De izda a dcha: Diego Garrido, Agurtzane Martínez, el consejero Juan Cruz Cigudosa, Uxue Itoiz y María Uresandi.

Nafarroan, Ikerketa eta Garapeneko (I+G) barne gastua 409,9 milioi eurokoa izan zen 2022an, 2021ean baino % 5,1 handiagoa, Estatistikako Institutu Nazionalak gaur goizean emandako datuen arabera. Juan Cruz Cigudosa García Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak aurkeztu ditu datu horiek, ADitech-ek antolatutako Berrikuntza Ekosistemen bederatzigarren jardunaldian.

(Albiste honi buruz gehiago jakin nahi baduzu, mesedez kontsulta ezazu gaztelaniazko bertsioa. Goiko nabigazio barra gorrian alda dezakezu hizkuntza).